

1. koaderno. Testuinguruaren analisia



[Bolivia]

Genero ekitatea eraikitzea Boliviako Nor Cinti eta Sud Cinti probintzietan



Dokumentu honen bidez, Boliviako landaguneetan genero ekitateak zer-nolako egoera duen erakutsiko dizugu, hiru alderdiri erreparatuta: eremu politikoan eta araudietan izan duen bilakaera historikoari; Boliviako GGKE batek egiten duen lanari, eta nekazarien komunitateetako egunerokotasunari.

1. Emakumeen partaidetza politikoa Bolivian

Azken urteetan Bolivian politikaren arloan gertatzen ari den aldaketa batek zerikusia dauka emakumeek eskubide politikoak erabiltzearekin.

Boliviako Errepublika sortu zenetik (1825), behin eta berriz izan da eztabaidagai emakumeen partaidetza politikoa eta haien herritartasunaren aitortpena, baina XX. mendearen erdialdean eman zaio merezitako garrantzia.

1947ko udal hauteskundeetan boliviarr emakumeek lehen aldiz bozkatu ahal izan zuten eta hautetsi izan, baina irakurtzen eta idazten zekitenek bakarrik.

1952an, **boto unibertsala** onartu zuten, eta, hortaz, emakumeek, nekazariak eta indigenak ere bozkatzeko eskubidea izan zuten. Emakumeek 1956an erabili ahal izan zuten eskubide hori, eta urte hartan, lehen aldiz, bi emakumek eserleku bana bete zuten Boliviako Parlamentuan.

1977ko martxoan, **Hauteskundearen Erreforma Legea** ateratu zuten, eta bertan ezarri zuten Botere Legegilerako hautagaien zerrendetan sartu beharreko emakumeen gutxienezko kuotaren mozioa. Kuota horiek aplikagarri izan ziren urte hartan bertan egin zituzten hauteskunde nazionaletan. Lege horren arabera, gutxienez hautagaien % 30ek emakumeak izan behar zuten Parlamenturako zerrendetan, eta Senaturako zerrendetan, berriz, % 25ek.

Kuota horiek ezartzeak ez zuen berekin ekarri automatikoki emakumeek kargu kopuru horiek betetzea, Boliviako ordezkari sistema zentralizatuaren ezaugarriak eta legegaren beraren definizioak zirela tarteko, baina, murrizketak murrizketak, emakumeen partaidetza eta presentzia handitu egin ziren kuantitatiboki.



Emakumeak eta gizonak formakuntza lantegi batean

1994an, Emakumeen kontrako Diskriminazio Oro Ezabatzeko Hitzarmena (CEDAW) berrestearekin batera, lehen saioak egin zituzten genero ekitatearen ikuspedia aintzat hartzen zuten politikak eta araudiak egiteko, eta horrelakoan artean nabarmentzekoak dira **Herritarren Partaidetzako Legea (1994)**, **Deszentralizazio Administrazioaren Legea (1995)** eta **Hezkuntzaren Erreforma Legea (1995)**.

1999an, **Alderdi Politikoen Legea** sustatu zuten, emakumeen partaidetza bermatzeko betebeharra ezartzen zuena, eta emakumeen partaidetzarako %30eko kuota zuzendaritzako mailetan eta hautagaitzetan.

1999an bertan, **Munizipalitateen Legea** onartu zuten. Haren arabera, genero ekitatea kontuan hartu behar zen politikak, planak, programak eta proiektuak prestatzean eta gauzatzean, eta emakumeen partaidetza sustatu behar zen horien definizioan. Horrez gainera, udal gobernuetan gutxienez hautagaien % 30ek emakumeak izan behar zutela ere ezarri zuen.

2000. urtetik aurrera, Bolivian zenbait **mobilizazio eta ibilaldi sozial** abiarazi zituzten uraren pribatizazioaren aurka, hidrokarburoen politikaren aurka eta gasaren erabilaren aurka, eta, era berean, Nekazaritzaren



Legebiltzar Jauregia, La Paz

Erreforma Legearen aldaketa eta hizkuntzen aitoren ofiziala aldarrikatu zituzten. Horrek guztiak agerian utzi zuen demokrazia ordezkatzailaren ereduak, alderdi politikoen sisteman oinarrituak, baztertu egin zituela herritarren gehiengoak biltzen duten talde antolatutak, hala nola nekazariak, jatorrizko taldeak eta herri indigenak, eta talde horiek beren eskubideak aldarrikatzen hasi ziren, beren eskaera partikularrak ikusarazten eta Biltzar Konstituziogile¹ bat osatzeko eskatzen.

2004an, **Herritar Taldeen eta Herri Indigenen Legea** onartu zuten, bi eragile berri horiek aukera izan zeza- ten, alderdi politikoen antzera, gizarte zibila Estatua- ren aurrean ordezkatzeko. Emakumeen ordezkari- zari dagokionez, lege horrek % 50eko kuota ezarri zuen, eta emakumeentzako txandaketa karguetarako hauta- gaitza guztietan.

2005ean, gizarte mobilizazio etengabeak eta Biltzar Konstituziogilea deitzeko eskaera ikusirik, hauteskun- de orokorrak egin zituzten, eta Evo Morales Boliviako presidente hautatu zuten, **Biltzar Konstituziogilearen** prozesua abian jartzeko eta **konstituzio berriaren** pres- taketa kudeatzeko agindupean.

Biltzar Konstituziogilean (BK) 255 ordezkari- tik 88 izan ziren emakumeak, hau da, % 35. Kopuru hori histo- rikoa zen, eta, gainera, BKren burua emakume bat zen.

Emakumeen elkarte ugari eta askotarikoek **Esta- tuko Konstituzio Politiko Berrian** genero ikuspegia eta emakumeen eskubideak sartzeko lortu zuten. Konsti- tuzioa 2009an onartu zen, erreferendum bidez. Artiku- luetako batzuek berariaz egiten diote erreferentzia par- taidetza politikoari. Esaterako, 210. artikulua: *“Herritar elkarte- en eta alderdi politikoen buru eta hautagaien*

¹ Konstituzioa sortzeko edo aldatzeko berariaz sortzen den erakundea da. Biltzar horretako kideek lurralde bateko sistema politiko eta soziala- ren funtzionamendua arautuko duten arauak ezartzeko edo aldatzeko ahalmena eta eskumena dute. Herriak hautatzen ditu pertsona horiek; hortaz, organo demokratikoa da.



Ama bere alabarekin, Pucapampa komunitatea

barne aukeraketa Hauteskunde Organo Plurinazionalak arautu eta kontrolatuko du, zeinak gizon eta emakumeen partaidetza orekatua bermatuko duen". Konstituzio berrian ezarritakoaren arabera, 2010eko urtarrilaz geroztik genero parekotasunaren irizpidea erabiltzen dute ministro karguak betetzeko, eta presidentea edo estatuburua da horren arduraduna.

2009an, **Hauteskunde Erregimen Iragankorraren Legeak** emakumeen eskubidea ekitatez eta baldintza beretan parte hartzeko hauteskunde prozesuetan, eta hauteskunde zerrendak prestatzeko txandaketa irizpidea ere aipatzen zuen.

2009ko hauteskunde nazionaletan 30 emakume izendatu zituzten diputatu titular (% 30) eta beste 16 senatari titular (% 44), eta Evo Moralesek 20 saileko ministro kabinetea osatu zuen, horietako 10 gizonak zuzenduak eta beste 10 emakumeek.

2010eko udalerrietako eta departamentuetako hauteskundeetan, emaitzek argi erakutsi zuten parekotasun eta txandaketa irizpideak ezarrita nabarmen igo zela emakumezko zinegotzi titularren partaidetza, ia erabateko parekotasunera iritsi arte (% 43 eta % 42, hurrenez hurren).

2010eko urtarrilean Legebiltzar Plurinazionala² osatu ostean, **Hauteskunde Erregimenaren Legea** definitu zuten, txandaketa eta parekotasun (% 50) irizpideak ezarri zituen hautazko agintaritza guztietarako hautagai zerrendak prestatzeko (senatua, parlamentua, departamentuak eta udalak).

Boliviako azken hauteskunde nazionalak 2014ko urrian egin dira, eta parlamentua eta senatua osatu zuten emakumeen ehunekoa inoiz baino handiagoa izan da. Diputatuen ganberan % 50eko ordezkartza lortu dute, 130 aulkitik 65 beteta, eta senatuan, berriz, % 44koa, 36 aulkitik 16 beteta.

"Argi dago Hauteskunde Erregimenaren Legea eta bertan jasotako parekotasun eta txandaketa irizpideak ezarrita emaitza onak lortu direla emakumeen eta gizonen arteko partaidetza zuzena indartzeari dagokionez, eta horrek Boliviako demokrazia sistema bera indartzen du", adierazi du Mónica Novillok, Emakumeen Koordinakundeko idazkari exekutiboak. Erakunde horrek, beste 300 erakunde eta elkarterekin batera, "Paridad es Ahora" (Parekotasuna orain) kanpaina bideratu zuen, aurrerapenak lortzeko emakumeek herrialdeko politikan zuten partaidetzan.

Partaidetza politikorako bermeak

Emakumeen partaidetza politikoan lortutako aurrerapenak ez dira mugatzen hautagaitza parekideak aurkezteko aukerara; zerikusia dute, baita ere, karguak betetzeko gutxieneko berme batzuk lortzearekin. Azken urteetan, berme horiek emateko zenbait lege onartu dira, hala nola **Emakumeen aurkako jazarpen eta indarkeria politikoaren kontrako legea**. Jazarpen politikoa zen emakumeek ordezkartza edo agintaritza postuetan aritzeko zeukaten oztopo nagusia. Jazarpen politikoko praktikak dira, besteak beste, bilera orduak aldatzea emakumezko zinegotziei ezer esan gabe, haiek bahitzea, sexu indarkeria pairatzea, etxebizitzak suntsitzea eta komunitateetatik kanporatzea.

2 Boliviako Botere Legegile Nazionala da, eta bi ganbera ditu: Diputatuen Ganbera eta Senatarien Ganbera.



Gizonak eta emakumeak formakuntza lantegi batean

Emakumeei indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko lege integrala da onartutako beste bat, eta prebentzioa, arreta, babesa eta ordaina ziurtatzeko politikak aurreikusten ditu emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako.

Aurrerapenak, ikuspegi alderatutik

Latinoamerikan, Bolivia izan da hauteskundeetan parekotasuna eta txandaketa arautu dituen lehen herrialdeetako bat.

Munduko Ekonomia Funtsaren Genero Arrakalaren Indizeak erakusten digu Bolivian azken urteetan aurrerapen handia izan dela emakumeek beren eskubideak erabiltzeko duten aukeran. Indizeari berari buruzko kritikak badaude ere, Boliviak aldaketa nabarmenak izan ditu, eta 2006an 87. postuan egotetik 2013an 27. postuan egotera pasatu da (136 herrialdeetatik).

2. “Ayni”, Emakumeen Hezkuntza eta Garapenerako Zentroa

“Ayni” Emakumeen Hezkuntza eta Garapenerako Zentroa gobernuz kanpoko erakunde (GKE) bat da, irabazi asmorik gabea, 1991n eratua formalki, eta ha-

ren xedea da emakumeen bizi kalitatea hobetzea eta haien komunitateetako ordezkartza esparruetan duten presentzia areagotzea, haien gaitasunak indartuta eta ahalmenak garatuta. Hortaz, komunitateak genero perspektibadun giza garapen iraunkorra lortzeko erabil dezakeen tresna bat da “Ayni” Zentroa.

Ayni Zentroaren lan eremua San Lucas eta Camargo udalerrietara mugatzen da Nor Cinti probintzian, eta Culpina udalerrira, berriz, Sud Cinti probintzian. Horiek guztiak Chuquisaca departamentuaren barruan kokatuta daude, eta Boliviako udalerrri txiroenetakoak dira. Bertan, Ayni Zentroak lankidetzak hitzarmenak ditu zenbait erakunde publikorekin, lan jarraitua egiteko emakumeen garapena eta ahalduntzea sustatzeko.

67 mila pertsona inguru biltzen dituzten 3 udalerrri horietan, Ayni Zentroaren lanaren ardatza bitarteko gutxien dituzten eta hiriguneetatik urrutien bizi diren nekazari familiak dira, oso zerbitzu gutxiko landaguneetan bizi baitira.

Ayni Zentroa, Emakumearen Plataforma eta antzeko beste sare batzuetako kide formala da, eta modu informalean ere parte hartzen du generoaren arloko zenbait elkarte, itun eta lan forotan. Gizarte mugimenduen eta estatuko erakundearen aitorpena jaso du.



Culpina udalerriko emakumea

Hauek dira Ayni Zentroaren lan ildo nagusiak:

1. **Bigarren Hezkuntza sustatzea.** Gaurdaino, 5 barne-tegi jarri ditu martxan landagunean, eta horietan gazteek ikasketa trinkoak egin ditzakete 10 hilabetez, gero etxera itzuli eta senideei uztan lagundu ahal izateko.
2. **Helduengan gaitasunak sortzea.** Inguruko errealitatea aztertzen eta ulertzen lagunduko dien pentsamolde kritikoa eraikitzea; erabakitzeke espazio sozialetan parte hartzeko mesedegarri izango zaizkien abileziak eta trebetasunak ikastea, eta ikasitakoa komunitateko gainerako kideei irakasteko eta haiekin partekatzeko gaitasuna lortzea. Horretarako, Ayni Zentroak helduen prestakuntzako 2 zentro ditu, eta gizon nahiz emakume nekazariak parte hartzen dute horietan.
3. **Giza eskubideak erabiltzea.** Batik bat, indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea eta bizitza politikoan parte hartzeko eskubidea. Ayni Zentroak Udalaren Lege Zerbitzu Integralarekin (ULZI) batera lan egiten du. Zerbitzu hori udalerrri guztietan dago, eta laguntza psikologikoa, gizarte laguntza eta legezko laguntza ematen die emakumeei, helburutzat hartuta genero indarkeria desagerraraztea.

Illo horretan, Ayni Zentroak ikastetxeekin ere lan egiten du, irakasleak prestatzen, genero ekitatea curriculumeko edukietan sartzeko, baita hezkuntzako metodologietan eta ikasgelan sustatzen diren jarrera eta balioetan ere.

Bizitza politikoan parte hartzeko eskubideari dago-kionez, Ayni Zentroaren xede nagusia da emakumeek nortasun agiria edukitzea, horri esker aukera baitute hauteskundeetan botoa emateko eta hautagai gisa aurkezteko, baita hezkuntza nahiz osasun zerbitzuak, bankuetako zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk erabiltzeko ere.

4. **Emakumeen ekimen ekonomikoak eta ekoizpeneko ekimenak sustatzea.** Emakumeen eta haien senideen bizi baldintzak hobetzeko eta emakumeek komunitatean duten presentzia areagotzeko asmoz, merkatuaren beharrei erantzuten dieten proiektu iraunkorrak identifikatu eta abiarazi dituzte.
5. **Ayni Zentroa eta Zabalketa elkarteek azken 12 urteetan elkarrekin egindako lanaren emaitzak.**

Hezkuntzako estrategia emakumeek bigarren hezkuntzako ikasketak egin ahal izatera bideratuta egon da, eta landagunean sortutako 5 barne-tegi-



Emakumeak formakuntza lantegi batean

ren bidez bultzatu da, guztira 500 plaza eskainita. Barnetegi horiek 10 urte daramatzate martxan, eta, epe horretan jasotako datuen arabera, 4.785 neskek egin ahal izan dituzte bigarren hezkuntzako ikasketak.

Era berean, familien eta komunitateko agintarien pentsamoldea aldatzeko lan egin da, emakume gazteei prestakuntza aukerak mugatzearen azpian zeuden arazoak konpontzeko.

Eskubideen erabilerari dagokionez, emakumeek gaitze ikastaroak egin dituzte, eta ezagutza berriak eskuratu dituzte euren eskubideak ezagutzeko, eskatzeko eta berdintasun osoz erabiltzeko. Horretarako, bi emakume talde bereizi dira: batetik, buru diren emakumeak, eta bestetik, emakumeen kolektibo osoa. Lehenengo taldeko emakumeek helduen prestakuntzarako 2 zentroetan jasotzen dute gaikuntza, eta bigarren taldekoek, berriz, komunitatean bertan, zentroetan gaitutako emakume horien eskutik.

Tokiko agintariek ere jaso dute gaikuntza, egitura horietako zuzendaritza organoetan eragitea lortu

ahal izateko. 2002. urteaz geroztik gaikuntzako eta sensibilizazioko hainbat ikastaro egin dira, eta 100 nekazari komunitate baino gehiagoko gizonetako nahiz emakumezko agintariek parte hartu dute horietan.

Gaikuntza horien ondorioz, gaur egun emakumeek partaidetza handiagoa dute batzarretan, karguak betetzen dituzte sindikatuetan eta emakumezko agintari gehiago daude udal gobernuetan. 89 emakumek daukate kargu bat sindikatuetan, eta 8 emakumezko zinegotzi daude 3 udalerrietako alkateztetan. 8 emakume horietatik 2k Ayni Zentroak eskainitako gaikuntza ikastaroetan parte hartu dute.

Arlo politikoan, genero ekitatea sustatzera bideratutako gaiak eta aurrekontuak sartu dituzte udal politikan. Sindikatuen esparruan, estatutuak aldatu dituzte, emakumeek zuzendaritzako karguak betetzea errazteko.

Genero indarkeriaren prebentzioari eta biktimekiko arretari dagokionez, Zabalketak eta Ayni Zentroak hainbat proiektu garatu dituzte. Prebentzioaren



Ama bere alabarekin garraio publikoaren zain

arloan, gizon zein emakumeentzako tailerrak egin dituzte, eta herritar orori bideratutako sentsibilizazio kanpainak abiarazi dituzte, irratsaioen bidez. Arretaren arloan, batetik, aldi baterako bi etxe eraiki dituzte genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzat, eta, bestetik, indarkeriaren biktima diren emakume eta haurrentzako arreta zerbitzu bat ezarri dute, Udalaren Lege Zerbitzu Integralarekin (ULZI) koordinatuta. Eta beste alde batetik, Indarkeriaren Aurkako Borrokarako Batzordeak eratu dituzte nekazarien 80 komunitatetan.

Antolakuntza eta ekoizpeneko lanari dagokionez, ekoizpenera bideratutako 3 emakume elkarte sortu dituzte, eta, ahultasunak ahultasun, euren agendan sartu dute errentaren sorreran, tokiko garapen



Nor Cinti eta Sud Cinti probintzien kokagunea

ekonomikoan eta baliabideen erabilgarritasun nahiz kontrolean dagokien eginkizuna. Hauek dira emakumeen elkarte horiek: Adela Zamudio (Camargo); Inti Pallay (San Lucas) eta Nuevo Amanecer (Culpina).

3. Nor Cinti eta Sud Cinti probintzietako bizimodua: ahultasunak eta baliabideak

Bi probintzia horiek nolabaiteko batasun geografikoa duen **mikroeskualde** bat osatzen dute. Mikroeskualde hori itsasoaren mailatik 1.100 metro gora dauden bailaretatik itsasoaren mailatik 4.100 metro gora dagoen zona menditsu batera zabaltzen da, eta, hortaz, estai ekologiko anitz daude. Klimak bi urtaro nabarmen ditu: urtaro lehorra, apiriletik urrira, eta eurien urtaroa, azarotik martxora.

Bi probintziek 110.000 biztanle inguru dituzte 13.500 km² baino gehiagoko azalera batean (Euskadiren azaleraren ia bikoitza), beraz, dentsitatea oso txikia da.



Camargo, airetikoko ikuspegia

Administratiboki, 7 udalerrik osatzen dituzte bi probintziak, eta udalerrri garrantzitsuenak, biztanleriari eta ekonomiari dagokienez, San Lucas eta Camargo dira, iparraldean, eta Culpina, hegoaldean. Udalerrri horiek izan ditu ardatz Ayni Zentroa eta Zabalketa GGKEek hurrenez hurren Bolivian eta Euskadin egin-dako lanak.

3 udalerrri horietan 250 komunitate txiki daude. Datu horrek argi erakusten digu biztanleak oso sakabanatuta bizi direla. Ayni Zentroa eta Zabalketa elkarteak komunitate horietako 28tan ari dira garatzen beren azken proiektua (28 komunitate horiek 10.500 pertsona biltzen dituzte).

Kulturalki eta etnikoki, jatorri kitxuako komunitateak dira, eta horiekin bat egin dute herrialdeko beste eremu kultural batzuetako zenbait nekazari komunitatek, baina ez dute funtsean eragin andertar oinarri antropologikoan. Kitxua da hizkuntzarik erabiliena zenbait sektoretan, batik bat emakumeen artean eta nagusien artean. Aipatutako 3 udalerrietan, kitxua hizkuntza nagusia da San Lucasen,

baina Camargon eta Culpinan gaztelania erabiltzen dute nagusiki, nahiz eta badiren kitxuaz ere hitz egiten duten sektore garrantzitsu batzuk, batez ere emakumeen artean.

Politikoki, nekazari komunitateetan, **sindikatu** da antolakunde politiko garrantzizkoena. Sindikatuetan afiliatua egotea da pertsona (gizona nahiz emakumea) sindikatuko kide gisa formalki aitortzeko mekanismoa; eta eskubide jakin batzuk ematen ditu afiliatuta egote horrek, hala nola, batzarretan botoa ematekoa eta sindikatuko zuzendaritzarako hautetsi izatekoa. Horregatik da hain garrantzizkoa afiliazioa, eta sindikatuen araudien bidez arautu beharra dago.

Tradizioz, gizonak soilik aritu izan dira sindikatuetan, bai zuzendaritzan bai bilguneetan; horregatik, gaur egun, emakumeak sindikatuetan afiliatu gabe jarraitzen dute komunitate gehienetan, emakume alargunak eta ama ezkongabeak izan ezik, zeinak afiliatu ohi baitituzte familia unitatean gizonik ezean.



San Lucas udalerriko udaletxea

Bestalde, sindikatuek ez dute izaten afiliazioa arautzeko estatutu edo araudirik, eta, hala, sindikatuaren zuzendaritzaren esku gelditzen da erabat; horrek kolokan jartzen du emakumeen boto eskubidea eta hautetsi izateko eskubidea. Azken urteetan, dena den, aldatuz joan da egoera, eta aurrerapen handiak egin dira emakumeen tokiko partaidetza politikoan, nahiz eta oraindik hainbat erronka dauden gainditzeke.

Dagoeneko ez dago emakumeek parte hartzeko debekurik, garai batean bezala, eta gero eta partaidetza zabalagoa dute; baina, hala ere, esaten dute diskriminazioa pairatzen dutela, oraindik, ez delako beren iritzia aintzat hartzen eta ez direlako beren proposamenak kontuan hartzen.

Azpimarratzekoa da, halaber, emakumeek partaidetza esparruetan bizi duten diskriminazioa emakumeek berek eragina izaten dela, sarritan, uste baitute gizonak iritzia emateko eta proposamenak egiteko ahalmen handiagoa duela emakumeek baino.

Udal Gobernu Autonomoak du ahalmen arautzaile, exekutibo eta tekniko; horrez gainera, modu autonomoan administratzen ditu Estatutik iristen diren baliabideak eta indarrean dagoen araudiaren arabera xedatzen du haien aplikazioa.

Honela osatuta dago Udal Gobernuak: Udal Kontzejua, 5 zinegotzik osatua gutxienez –udalerriko biztanleriaren

arabera- eta alkatea, zeina baita haren aginte exekutibo gorena. Agintari horiek herri bozketa sekretu bidez aukeratzen dira, 5 urteko legealdietarako.

Alkateak Udal Gobernuak zuzentzeko eta administratzeko funtzionarioak izendatzen ditu, baita administrazioko langileak ere.

Azken udal hauteskundeetan (2010eko apirilaren 4a), modu eraginkorrean ezarri zen hautagai zerrendetan gizonen eta emakumeen arteko txandaketa, 2010ean onartutako Hauteskunde Legeari jarraituz, zeinak baitio lehen zinegotzi hautagaia gizonekoa bada emakumezkoa behar duela izan haren ordezkioak, eta, gainera, emakumezkoa izan behar duela bigarren zinegotzi hautagai titularrak, gizoneko bat duela ordezkio. Eta horrela, hurrenez hurren, alderdi bakoitzak aurkez ditzakeen 5 hautagaien zerrenda osatu arte. Nolanahi ere, alderdi gehienek gizonekoa aurkeztu dute alkatetzarako lehen hautagai.


Gaur egun, Cinti eskualdeko 7 udalerrietako alkateak gizonekoa dira, nahiz eta, 2010eko hauteskundeetan (azkenekoetan), emakumeak sartu ziren Udal Kontzejuetan. 7 udalerririk kontuan hartuta, 17 emakume zinegotzi daude, eta 37 zinegotzi dira guztira.

Sindikatuaren eta udal gobernuaren arteko artikulazioa

Zaintza Batzorde deritzenen bidez gauzatzen da. Zaintza Batzordeak gizarte zibileko erakundeak dira, eta haien eginkizuna da sindikatuaren aldarrikapenak udal plangintzara eramatea, udal administrazioaren zaintza soziala gauzatzea eta talde onurarako ekimenak eta ekintzak bideratzea.

Ekonomikoki, 3 udalerrietako nekazari komunitateek nekazaritza-abeltzaintzan dihardute nagusiki, batez ere nekazaritzan. Fruta lantzen dute batik bat, mahastiak, duraznoa eta sagarra, nagusiki. Laboreak ere ereiten dituzte, hala nola, garia, artoa eta garagarra. Baita tuberkuluak ere, papa eta oka esaterako, eta bestelako produktu batzuk: azukre kanabera, ajia, tipula, kakahuetea etab.

Abere hazkuntza nekazaritza jardueraren osagarri modura egiten dute; nagusiki, familiarentzako elikagaia,



Senar-ematea lurra iraultzen

artilea eta esnekiak ateratzeko baliatzen dute, eta abere eta txerri hazkuntza dira ekonomian nolabaiteko garrantzia duten bakarrak.

Emakumeek egiten dituzten ekoizpen jarduera aipagarrienak abere hazkuntza, elikagaien lanketa, eskulangintza eta komunitatearen baitako tokiko merkataritza dira. Gizonezkoen jarduera nagusiak, berriz, nekazaritza, meagintza, eraikuntza, garraioa eta zerbitzuak dira.

Gorabeherak gorabehera, emakumeek funtsezko ekarpena egiten dute, baina gizonek ez dute aintzatesten eta balioesten emakumeek ekoizpen jardueretan duten partaidetza eta betetzen duten egitekoa, eta gizonek erabili ohi dute merkataritza jardueretatik eskuratutako dirua, batzutan alkohola erosteko.

Diru-sarreraren arteko aldeari dagokionez, 2004an Etxeetako Inkesta Jarraituaren datuek erakusten dutenez, generoaren arabera diru-sarreraren arteko aldea %50ekoa da, batez beste, eta landa eremuetako emakumeek eremu berean gizonek jasotzen duten diruaren %29 baino ez dute jasotzen.

Mikroeskualdeak nekazaritza-ekologia baldintza nahiko onuragarriak dituen arren, ez du lortu garapen teknologiko adierazgarriarik, eta herritar gehienak iraupenerako ekoizpenean dihardute, ekoizpen molde tradizionalekin, animaliak eta esku lanabesak erabiliz. Hala, ekoizpenaren parte handiena etxeko kontsumora bideratzen da (familia eta animaliak), eta gelditzen diren soberakin apurkak aldiro tokiko azoketan merkaturatzen dira, baina nekez ematen diete familiei baliabide aski. Egoera horretan, emakumeak sentitzen dira mugatuen, haiek arduratzen baitira familia elikatzeaz eta zaintzeaz.

Lurren jabetza sistema mistoa da (jabetza partikularra eta herri jabetza), nekazaritza lurrei dagokienez; abeltzaintza, berriz, modu estentsiboan egiten da, herri lurretan.

Lurra da bizibidea ateratzeko bitarteko nagusia gizon nahiz emakume nekazariarentzat, eta haren bidez lortzen dituzte familiarentzako oinarritzako elikagaiak eta diru-sarrerak. Gainera, lurra lotura estua du lurraldearekin, zeina hartzen baita pertsonen alderdi soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala garatzen duten bizi eremutzat.



Emakumeak beraien familientzako bazkaria prestatzen

Emakume gehienek familiaren lursailean edo herri lursailetan lan egiten dute; haien lanak ez du, ordea, aitoriza ekonomiko nahiz sozialik, eta, hala, baztertuta daude, lurra edukitzeari eta lurjabe izateari, erabakiak hartzeari eta ekoizpen baliabideei dagokienez: gaitzea, teknologiarako sarbidea, merkaturatze zerbitzuak, kredituak, ekoizpen proiektuak eta abar. Horrek murriztu egiten du emakumeen autonomia, eta areagotu, haien mendekotasun ekonomikoa.

Asimetria horren eragile nagusia da komunitatean eta familian jarduera maskulinitzat jotzen dela nekazaritza, eta, hala, gizonetxoei lehentasuna ematen zaiela oinordekotzan, ezkontsariaren pribilegioetan, eta baita garapenerako komunitate programetan ere.

Legeak eta indarrean dauden konstituzioak berak jasotzen eta zehazten dute emakumeek lurjabe izateko eskubidea dutela, eta orobat diote jabetza tituluek senar-emazteen edo bi bikotekideen izenean egon behar dutela, emakumearen izena aurretik dela. Legeak lege, ordea, eta Bolivian emakumeak diren arren nekazarien etxeen %23ren buru, emakumeek ez dute bermatuta lurra eta jabetza titulua eskuratzeko eskubidea. Cinti mikroeskualdeari buruzko daturik ez dagoen arren, Chuquisaca Departamenduan, 2010eko ekainean, 2.292 jabetza titulu zeuden emakumeen

eskuetan (emandako titulu guztien %15), 235.666 Ha-ko azalerari zegozkienak, titulupean dauden azalera guztiaren %24.

Emakumeek diru-sarrera handiagoak eskuratzeko premiak bultzatuta, emakume erakundeak sortu dira, ekoizpen proiektuak kudeatzeko eta diru-sarrerak lortzeko. Hala ere, aldian aldiko ekoizpen proiektuak baino ez dituzte kudeatzen, eta momentuz ez dituzte izaten emaitza ekonomiko onak. Izan ere, erakunde horiek kudeaketarako ahultasun nabarmenak dituzte, ez baitute behar adinako prestakuntzarik ekoizpen ekimenak identifikatzeko eta formulatzeko.

Bestalde, erakundeek ez dituzte biltzen emakume guztiak; kanpoan gelditzen dira, batik bat, eremu barreiatuetakoak, parte hartzeko muga handiak baitituzte komunitateen urruntasuna eta joan-etorrien garestitasuna direla-eta.

Etxeko lanak gizonen eta emakumeen artean banatzeko modua eskema tradizionalan oinarritzen da: emakumeek dute etxeko lanen eta seme-alaben zaintzaren ardura, eta gizonak etxeko lanetan izan beharreko partaidetza emakumearen "laguntza" modura hartzen da, ez gizonak familiarekiko dituen arduren parte modura. Zeregin tradizionalari aurre eginez gizonak etxeko espazioetarako joera izateak diskriminazioa edo iseka ekar diezaioke beste gizon batzuen aldetik. Hala, badago halako eskakizun sozial moduko bat maskulinitatea berrestea eskatzen duena, gizonari egozten zaizkien rolak -alegia, diru-sarrerak sortzeko ekoizpen jarduerak- soilik gauzatzu.

Nolanahi ere, etxe gehienetan, gizonak migratu egiten dute 3 hilabeteko eta hortik gorako denboraldietan, lan bila, eta, halakoetan, emakumeen gain uzten dituzte ekoizpen lanak. Kasu horretan, emakumeen gain gelditzen da etxearen eta familia ekoizpen unitatearen gaineko erantzukizun osoa, eta askoz ere lan karga handiagoari aurre egin behar izaten diote.

Rol estereotipatu horiek ikasiak dira, belaunaldi belaunaldi transmitituak eta zabalduak, norberaren hazkunderaren bidez, eta gerora errepikatu egiten dira alabak edo semeak eratutako etxe berrian.



Irakaslea Giza Eskubideak erakusten

Hezkuntzari dagokionez, estatistika nazionalak erakusten dute azken urteetan nabarmen hobera egin duela eskolatzeko adinean dauden herritarren (4 eta 17 urte bitarte) hezkuntza erregularrerako sarbidea, eta nabarmen murriztu dela, halaber, eskolara joaten diren emakumeen eta gizonen arteko aldea. Nolanahi ere, eskolara joan gabe gelditzen dira eskolatzeko adineko gazteen %26, eta ehuneko horretan neska eta emakume nerabeak dira gehiengoa. Azken hamarraldian hezkuntzan aurrerapen handiak egin badira ere, eta, datu nazionalen arabera, emakumeak eskolara maila orotan sartzeko aukera badute ere, landa eremuan, oraindik begi bistakoa da emakumeek eskolara sartzeko eta ikasketak amaitzeko mugak dituztela, lehentasuna ematen baitaio neskek eta emakume nerabeek etxeko lanak eta ekoizpen lanak egiteari.


Mutilek eta neskek eskolarako sarbideari buruz duten berdintasunik eza bigarren hezkuntzako mailan nabarmentzen da, bereziki. Egoera horren erakusgarria da, adibidez, San Lucas udalerria: udalerri horretan, ikasketen mailan zenbat eta gorago, orduan eta gehiago murrizten da bigarren hezkuntzan sartzeko lortzen duten emakumeen kopurua, gizonen kopurua baino nabarmenago.

Hezkuntzaren egoera horren atzean, arrazoi asko daude, hala nola, ikastetxeen urritasuna; bigarren hezkuntzako ikastetxe guztiak hiriguneetan egotea; landa eremuetako ikastetxeetara iristeko oztopo geografikoak; familien baliabide ekonomikorik eza; eta gurasoen laguntza urria, semeen hezkuntza lehenesten baitute, eta neskek eta emakume nerabeek etxeko lanak eta ekoizpen lanak egin ditzaten sustatzen baitute.

Goi mailako hezkuntzarako sarbidea are zailagoa da, oinarritzko ikasketak amaitu ezean ezinezkoa baita goi mailako ikasketei ekitea; gainera, unibertsitate ikastegi gutxiago daude, urrunago daude eta inbertsio ekonomiko handiagoa eskatzen dute. Alderdi horiek, jakina, emakumeei nahiz gizonei eragiten diete, baina gizonek aukera gehiago dituzte ikasketak egiteko, familien sostengu handiagoa dutelako hezkuntza jarraitzeko; hortaz, gizonezkoak dira ikasketak amaitzen dituztenen artean gehiengoa, eta nagusiki gizonak migratzen dira hirietara, non baitago ikasteko aukera gehiago.

Emakume nekazariak, dena den, askotariko bideak bilatu dituzte irakurtzen eta idazten ez jakiteak dakartzkien mugak gainditzeko: emakume askok “Yo sí puedo” alfabetatze programan parte hartu dute; beste batzuek beren kasa eta beren saiamenez ikasi dute

1. taula: San Lucas, bigarren hezkuntzako ikasleak, ikasmailaka eta sexuka



Lan honetarako berriaz egina. Iturria: Mailaz maila izena emandako ikasleen txostena. San Lucas hezkuntza barrutia. 2012ko iraila.



Emakume gazteak landa eskola batean


edo ikasten ari dira irakurtzen eta idazten, etxekoan edo konfiantzazko beste pertsona batzuen laguntzaz; badira senarraren eta seme-alaben sostengua bilatu dutenak ere, dokumentuak irakurtzen lagun diezaieten, haiek ulertzeko. Bide horiek aukera eman diete emakumeei pixka bat hobeto moldatzeko etxetik kanpoko espazioetan, adibidez emakume elkarteetan edo komunitatearen baitako karguetan.

Genero indarkeriaren arazoari dagokionez, 2012an honako kasu hauek erregistratu zituzten Udal Zerbitzu Legalek (Servicios Legales Municipales, SLIM), 2012ko irailera bitartean:

2. taula: Emakumeen kontrako indarkeria kasuak, proiektuaren esku-hartze eremuan erregistratuak

Udalerria	Instantzia	Erregistratutako kasuen kopurua
Camargo	SLIM Camargo	375
San Lucas	SLIM San Lucas	28
Culpina	SLIM Culpina	170

Lan honetarako berriaz egina. Iturria: Culpina, Camargo eta San Lucas SLIMetan erregistratutako kasuak. 2012ko iraila.



Emakumea bere behi bat jezten



Emakumea sendabelarrak merkatuan saltzen

Camargon erregistratu dira kasu gehien; Culpina da bigarrena, kasu kopuruari dagokionez, eta San Lucas hirugarrena. Datuek erakusten dutenez, San Lucasen askoz ere kasu gutxiago erregistratu dira, baina horren arrazoia izan liteke udalerrri horretan komunitateak barreiatutagoak egotea.

Azken urteetan, gora egin du salaketen kopuruak, baina horrek ez du nahitaez esan nahi indarkeria kasu gehiago daudenik orain; zerikusi handiagoa du emakumeek salaketa mekanismoak hobeto ezagutzearekin eta gaur egungo arauarekin, zeinak baitio ez dela ezinbestekoa biktimak berak jartzea salaketa, alegia, indarkeria gertaeraren berri duen edonork duela jakinarazpena egin eta salaketa abian jartzeko aukera.

Nolanahi ere, faktore askok galarazten dute emakumearen kontrako indarkeria kasuak salatzea, eta emakumeak berak izaten dira, nagusiki, erasotzailea salatu nahi izaten ez dutenak.

Familien egoera ekonomiko kaskarra izan ohi da horren arrazoi nagusietako bat; izan ere, baliabide ekonomikorik ezak mendekotasuna eragiten du, eta senarrak abandonatuko dituen eta seme-alabak mantendu ezin izango dituzten beldur dira emakumeak.

Era berean, prekariedade ekonomikoaren eraginez, bertan behera gelditzen dira salaketa asko eta asko, salaketak eta gerorako zitazioek kostua baitakarte, joan-etorrietarako, ostatu hartzeko eta abarretarako. Gainera, salaketak komunitateetan izapidetzen badira, zehapen ekonomikoak ezarri ohi dituzte. Zehazpen horiek bultzatuta ere uko egin ohi diote emakumeek salaketa jartzeari, zehazpena ordaindu beharrak familiaren ekonomiari eragiten baitio.

Faktore aipagarriak dira, halaber, urruntasuna eta komunitateak emakumeei arreta ematen dieten zerbitzu publikoei dagokienez barreiatuta egotea, baita maiztasun handiko garraio zerbitzurik eza ere, edo urte sasoi batzuetan zerbitzu horiek etenda egotea, edo joan-etorrien kostuak garestiegiak izatea, urruntasunaren eraginez.

Isolamenduak, familiaren baitakoak nahiz komunitatearen baitakoak, indarkeriari buruz zaurgarriago egiten ditu emakumeak; hau da, familia sareekin edo tokiko erakundeekin harremanetan egoteko edo haietan parte hartzeko aukera gutxi izateak zaurgarritasuna dakarkie. Gaur egun, komunitateko bizitza politikoan parte hartzen hasi dira emakume batzuk, baina gu-

txiengo dira, artean; izan ere, oro har, senarrek mugak jartzen dizkiete parte hartzeko, eta horrek estutu egiten du isolamenduaren eta indarkeriaren arteko erlazioa.

Gauza jakina da emakumeek gizarte jardueretan parte hartzea erabakigarria dela etxeko indarkeriarekiko zaugarritasuna murrizteko, eta emakumeek indarkeria gainditzeko gaitasuna sendotzen du, sare informal bidez (familia eta auzokideak) nahiz sare formalen bidez (komunitate erakundeak, emakume taldeak, alderdi politikoak, etab.)³.

Autoestimua apalak ere areagotzen du emakumeen zaugarritasuna, emakumeak bere buruarekiko konfiantza gutxi izatea eta bere burua behar adina ez balioestea dakarrelako, eta, horrek, etengabeko erasoak jasatera eta bikotekidearen jarrera biolentoa justifikatzera darama, baita nolabait sinestera ere emakumeek berek dutela bizi duten egoera horren

errua. Autoestimua apala da, halaber, emakumeen partaidetza urriaren eragileetako bat, eta beren burua bakartzeak indarkeriaren biktima izateko arrisku handiagoa dakarkie.

Eraso eta indarkeria ekintzen jatorrian dauden faktoreen artean, bereziki aipatzekoa da alkoholismoa, eta ez soilik familian; izan ere, datuek diote nerabeen eta emakumeen bortxaketak jaietan gertatzen direla, gazte nahiz helduek alkohola kontsumitzen duten ospakizunetan, alegia.

Indarkeria kasuen prebentzioaz eta arretaz arduratzen diren instantzien funtzionamendu kaskarra eta horien arteko behar adinako koordinazio esturik ezak emakumeen zaugarritasuna areagotzen dute, halaber. Bi kasuetan, aurrekontua, azpiegitura eta langileen prestakuntza eza direla-eta, ez dago landa eremuko udalerri guztiak barne hartzen dituen es-taldura nazionalik.

3 La violencia doméstica. UNICEF. 2000

Cinti eremuaren ezaugarri horiek erakusten dutenez, pobrezia egoeran bizi dira familiak, eta, garapenari dagokionez, alde handia dago udalerrietako hiriburuen eta landa eremuen artean.

Komunitateen pobrezia erabatekoa agerian uzten duen alderdi nagusietako bat gizonen eta emakumeen arteko ekitaterik eza da, eta, ekitatearen bidean aurrerapausoak egiten ari diren arren, emakumeak nabarmen daude desabantailan, gizonekin alderatuta, eta alde handiak daude batzuen eta besteen artean, aukera eta gaitasunen garapenari dagokienez, baliabideak eskuratzeari eta kontrolatzeari dagokienez eta gizarte, ekonomia eta politika partaidetzari dagokionez.

Ayni Zentroa eta Zabalketa elkarlanean ari gara erakunde politikoaren eremuan, gizarteko elkartearen eremuan eta gizarte zibilaren eremuan, lankidetzako proiektuen bidez aurrera egiteko genero ekitatea lortzeko bidean.

Iturriak:

- Programa “Construcción de la equidad en los cintis” PGM 2012BA/0002
- Avances en la participación política de las mujeres. Caminos, agendas y nuevas estrategias de las mujeres hacia la paridad en Bolivia, Marlene Choque Aldana
- Boliviako prentsako albistea: <http://la-razon.com> (22 octubre 2014)